



BARREN
TOKIKOM

Gailurrik gailur



barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com



Erakusketa: 943 820 697
Lantegia: 943 202 214
943 127 271

**Marka guztietako gurpiletan
deskontuak!**

www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

TELEBISTA LGLH5100



319€

43"

Full HD
1X HDMI
1X USB
300HZ PMI

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

SIEMENS HOZKAILUA



699€

320 Litro - No Frost
Inoxidablea
A++ (-40%eko aurrezpena)

MILAR BIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Prezioak apurtzen!



BANATOR!!!

Gaur
ikusiko dugu elkar!!

17:30ean
Maalako parkean!

Antolatzailea



Babeslea



Laguntzaileak



Elkartasunaren Funtzioak



IMH FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURERKATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

Fp
FUNDACIÓN
CONSEJO REGULADOR

ETOP
ENTIDAD REGULADORA
DE PROFESIONES
AUTÓNOMAS

Ba al zatoz? Eman izena!

Informazio saioak: **MAIATZAK 20**, larunbata 11:00etan

**HEZIKETA ZIKLO
INDUSTRIALAK**

Goi eta Erdi Mailan
DUALA aukeran!

Bertaratzea baieztatu: 943748265
(Amaia Ansola) amaia@imh.eus

AURREMATRIKULA:
Ekainak 5-16

Hurrengo informazio saioak:
www.imh.eus

GRADU DUALA

Prozesu eta Produktu
Berrikuntzan **INGENIARITZA**

Bertaratzea baieztatu: 943748264
(Itziar Egiguren) Ingeniaritza.ehu@imh.eus

AURREMATRIKULA:
Maiatzak 31



ABEL ARRIAGA



*“Diñue Elgoibar herri ‘epela’ dala; diñue herri honetan gauza gutxi antolatzen dirala...
Agian errealitatearekin bat ez datozen etiketak ezabatzeko ordua da”*

Egun handia da biharkoa, Andoitz. Morkaikoren Eguna. Elgoibarko mendizaletasunaren eguna. 300 pertsona inguru irtingo dira goizeko seiretan, Itzuli handia egitera; 200 guraso eta ume inguru, bederatziretan plazatik eta hamarretan Idotorbetik, Itzuliitxoia egitera. 100 ume inguruk jasoko dute domina ordu bat t'erdietan, urtean zehar egindako mendi kopuruaren arabera. 500 lagun inguruk bazkalduko dute elizako arkupeetan, giro ezin hobean.

Auzolana, elkarlana, urte guztian zehar egindako lana... eskalada, BTT, espereologia, orientazioa, eskia, emanaldiak, ikastaroak, umeen mendi irteerak... hori guztia ere bada Morkaikoren Eguna.

Baina biharkoa ez da izango Elgoibarren maiatzean egingo den ekintza bakarra. Joan zen asteburuan esaterako, agenda bete-betea izan genuen. Zapatuan, raid-a, raid familiarra, C.D.

Elgoibarren ospakizuna, galiziarren festa eta Birakako gaztetxoek dantzak. Domekan, berriz, beste hainbat herritan bezala, Gure Esku Dagok antolatutako galdeketa.

Hurrengo asteetan ere izango da ekintzarik Elgoibarren. Datoren zapatuan, adibidez, Elgoibarko Izarrak antolatuta, Txillarre baserria bisitatzeko aukera izango da, barazki ekologikoen peskizan. Kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak, ikastaroak, kale kantarriak, ipuin kontalariak, danborrada, krosak, dantzak, erraldoi eta buruhandiak, ganadu eta baserriko produktuen feriak, Ongarri, Kiribil... gutxienez beste 1.600 karaktere beharko nituzke, hemen dik urte bukaera arteko ekintza guztiak aipatzeko. Diñue Elgoibar herri "epela" dala; diñue herri honetan gauza gutxi antolatzen dirala... Agian, errealitatearekin bat ez datozen etiketak ezabatzeko ordua da, ez al duzu uste, Andoitz? Beste kontu bat da herritarren parte-hartze pobrea.



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



*“Beste herrialde batzuk ezagutzeko aukeria izan dotenian
gitxittan ikusi dot halako ekintzailletasuna”*

Eta denboraldixan zihar kirol elkartiek entrenamendu eta txapelketetan mugitzen dituen kirolari pillua, eta Karakate mikologi elkartiaren perretxiko astia, eta Haizea emakume taldiak antolatzen dituan ekintzak, eta Nahaste Borraste, eta astero etxian jasotzen dogun BARREN, eta auzuetako jaixak, eta Oin-alai... Ai ama! Arrazoia daukazu, Abel: ez genduke amaittuko. Zenbat ekintza, eta danak herrixari irekixak.

Eta parte-hartzia apala izatiak harritzen al zaittu? Horrenbeste ekintza izanda, nun parte hartu aukeratu biharra izaten da. Danian ezin!

Gure herrixan osasunaren eta aberastasunaren adierazle

ere badirala begittantzen jata. Beste herrialde batzuk ezagutzeko aukeria izan dotenian gitxittan ikusi dot halako ekintzailletasuna. Askoz ere gizarte individualistaguak ikusi ditud. Baleike ekonomikoki gu baiño garatuaguak izatia, baiña gizarte urriak begittandu jataz sarri. Eta horrek, nahi eta ez, osasun pertsonalari ere eragiten dio. Beste herrialde batzutan, berriz, nahikua daukate egunerokuari aurre egitten.

Zorionekuak gerala iruditzen jata. Jarraitu deigun bada horrela, ekintza irekixak antolatzen, partaide kopuruari horrenbeste erreparatu gabe. Morkaikoren aspaldi ikasi gendun leziua: ekintza baten arrakasta ez du partaide kopuruak adierazten, partaidiek esperientzia positibo bat izatiak baizik.

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Lehenengo programatzailea

zeukan esku artean, geroago historiako lehen ordenagailuzat hartu izan dena. Garai hartan, bestalde, Joseph-Marie Jacquard-en ehungailua famatu egin zen. Txartel zulatuak erabiliz ehunean edozein marrazki eratzeko programatu zitekeen makina hura.

Adak, hori baita gaurko protagonista-ren izena, Babbageekin lan handia egin zuen. Babbagek zenbakiekin lan egiteko nahi zuen bere makina, baina Adak beste erabilera posible asko ikusi zizkion. Adaren lehen lanetako bat Luigi Federico Menabrea italiarraren testu bat itzultzea izan zen. Eta itzuli bakarrik ez, testua bera baino luzeagoa ziren ohar batzuk idatzi zituen, bere ekarpenak eginez. Ekarpene horiek *Oharrak* izenburua daukate, eta tartean, Bernoulliren zenbakiak lortzeko makinari eman beharreko pausoak deskribatzen ditu Adak: hau da, ordenagailu

batean exekutatzeko lehen algoritmoa.

Adaren izen osoa Augusta Ada King zen, Lovelace-ko kondesa. Gaur egun emakume izateak mundu profesional eta intelektualean desabantailak badauzka, atera kontuak nolakoa zen egoera Inglaterra Viktoriarrean. Esaterako, Adak Augustus de Morgan matematikari eta logikari famatua hartu zuen irakasle. Hark, baina, arazo bat zeukan Adarekin: emakumeei zegokien moduan berak emandako ikasgaiak ikasteaz gain, Adak haratago joan nahi zuen, eta galdera gehiegi egiten omen zizkion.

Pentsaera haren ondorioz ziur aski, bere lana baztertua izan zen denbora luzez, harik eta 1953an bere *Oharrak* Adaren benetako izenarekin argitaratu ziren arte. Ordutik, hainbat aitorpen izan du bere lanak: ADA izeneko programazio hizkuntza, Lovelace domina, Ada Lovelace eguna...

1815. urtea zen historiako lehen programatzailea jaio zenean. Eta ez edonon, gainera: aita Lord Byron poeta izan zuen eta ama ere poeta eta matematikaria. Hazi eta hezi zen inguruak garaiko hainbat zientzialari eta idazle ezagutzera eraman zuen (Andrew Crosse, Sir David Brewster, Michael Faraday, Charles Dickens, Mary Somerville...). 18 urterekin, jai batean, Charles Babbage ezagutu zuen. Babbagek *Makina diferentziala* izeneko proiektu bat

“Adak haratago joan nahi zuen, eta galdera gehiegi egiten omen zizkion”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adieraztakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eduñe Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gerutu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► DEBABARRENAKO III. RAID-A

Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizuegu Debabarrenako III. Raid-a antolatzen lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibarko Udala, Udal Kirol Patronatua, Udaltzaingoa, Udaleko brigadako langileak, Danobat, Alcorta, Bersistain, Xoxoteko aterpetxea, Iriondo Kirolak, Astigarraga, GoBike, Bizkor, Pitxintxu, Txarriduna, Mauxitxa gaztak, Ainhoa Fisioterapia, Jasone inprenta, Eroski eta Gurutze Gorria.

Eskerrak antolaketan lagundu duguten Ibona Loiola, Asier Arizaga, Jose Luis Garaizabal eta aipatu gabe geratu diren gainontzeko boluntarioei. Proba berezarako, lokotx eta otarrak utzi dizkigun Ion Larrañagari, eta nola ez, parte hartzaileek igaro diren lur sailen eta baserrien jabeei. Aipamen berezi bat egin nahiko genioke eta barkamenak eskatu, Mokoroa baserriko Inaxiori, sortutako eragozpenengaitik eta eskerrak eman Zabale baserriko Aitorri, emandako laguntzengaitik.

Aurten lehen aldiz, familientzako raid txikia antolatu dugu, eta gustora gelditu gara emaitzarekin. Datorren urtean ere raid-ak bi formatuetan antolatzeko, gogo eta indarrrik ez zaigu falta. Eskerrik asko parte-hartzaile guztiei, eta hurrengo urtera arte!

Debabarrenako III Raid-eko antolatzaileak

► ESKERRIK ASKO

Txalotu herritar guztiak, maiatzaren 7an izandako jarrerarengatik. Txalotu botoa ematera etorri zineten guztiok, zuek izan baitzineten igandeko protagonistak. Txalo bero bat mahaietan egon zineten guztioi, irribarretsu hartu zenituztelako hautetsontzietara hurbildu zirenak euren iritzia ematera; baita jai egitaraua osatu eta herrian animazio

ederra jarri zenuteno ere, benetako artistak! Mila esker hainbat lantaldetan lanean fin aritu zareten guztioi: komunikazio arloan, baliabideak eta azpiegiturak lortzen, jaia antolatzen, buzoneoan, dekorazioan... ikusten ez diren mila detailetan. Norbere aukera politikoetatik haratago, dinamika eta proiektu honen inguruan ibili zaretenoi, erakutsi duzuelako posible dela ezberdinen artean ere lan egitea herritar guztioi lekua dugun bide honetan. Eskerrik asko berme-batzordekoiei, informatikariei eta, nola ez, egun hauetan guztietan San Frantzisko kaleko lokala utzi digutenei.

Laburtuz, laguntza eskatu eta eman diguzuen guzti-guztiori.

Pauso bat egin dugu aurrera, Elgoibarren ere egin dugu gure ekarpen-txoa eta, ezina ekinez egiten delako, eta igandean hartutako

indarra lagun, aurrera egingo dugu: herri bat garelako, erabakitze eskubidea delako eta gure garaia delako.

Gure Esku Dago

► “ESKERRIK ASKO”

Asko izan dira egun hauetan Mendaroko pintxo lehiaketak irauten duen egunetan Bizi Poza txarangak zergatik jo ez duen galdetu digutenak. Argi utzi nahi dugu ez genuela Udalaren gonbidapenik jaso, nahiago izan baitzuten kanpoko txaranga bat ekartzea.

Pena bat da herriko ekintza baterako herriko taldeekin ez kontaktzea. Maiatzaren 14an urtebete da Bizi Poza txaranga 25. urteurrena ospatu genuela. Eta orduan Udalak txaranga garrantzia eta babesa eman bazion ere, badirudi kontu zaharrak direla!

Bide batez, lerro hauek aprobeztatu nahi genituzke Mendaroko Udalak herriko musika hezkuntza eta taldeekin duen konpromiso falta azpimarratzeko. Ezinbesteko deritzogu Udalaren laguntza herrian gauzak mantendu, garatu eta ilusioz lanean jarraitzeko.

Gora Bizi Poza!

Mendaroko Bizi Poza txaranga

PAULA HERAS

“Elkarteak bazkideen babesa eta parte-hartzea behar dituelako herrian, gurekin eta guretzat, euskara eta euskal kultura sustatzeko”



Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izateak?

Enpresen mapa birtual berritua sareratu du Debegesak

Enpresen gaineko informazioa eskuratzeko, bitarteko teknologiko berri bat jarri dute herritarren eskura Debegesa, Oarsoaldea eta Goieki garapen agentziek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin: enpresen mapa birtuala (www.enpresagida.eus). Mapa horrek aukera ematen digu Debabarrenean, Oarsoaldean eta Goierriin dauden enpresei buruzko informazio eguneratua bilatu eta eskuratzeko. Enpresek eurek dute aukera hor jarzten den informazioa eguneratu edo berritzeko, eta beraz, haien sustapena ere errazten du mapa birtualak, enpresek aukera dutelako euren azpiegitura, instalazio, produktu, eskaintza, katalogo eta ematen dituzten zerbitzuen berri zuzenean emateko. Web-ak software libreko aplikazioak erabiltzen ditu, eta APP formatoan ere badago eskuragarri Android sistementzat.

Mapa birtualean agertu nahiko luketen enpresek edo enpresari buruzko datuak eguneratu nahi dituztenek euren eskualdeko garapen agentziarekin jarri behar dira harremanetan. Sustatzaileek nabarmendu dute mapa horretan agertzea debaldekoa dela. Informazio gehiagorako edo harremanetarako: Debegesa: 943 820 11 / debegesa@enpresagida.eus.

Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu Mendaroko udalekuak eta gabonlekuak



Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu aurten Mendaroko udalekuak eta gabonlekuak. Asteazkenean sinatu zuten hitzarmena Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek eta Sonia Garcia Mendaroko alkateak. Udalekuetan izena emateko epea joan zen ostiralean amaitu zen, eta 61 umek eman dute izena. Uztailaren 3tik 21era egingo dira, eta haurrak bi taldetan banatuta ibiliko dira: Haur Hezkuntzako 3. mailatik Lehen Hezkuntzako lehen mailara artekoak batetik, eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik seigarren mailara artekoak, bestetik. Astelehenean ostiralera, 9:30etik 13:00etarako zerbitzua izango da.

Espetxeetara martxak antolatu ditu Ezker Abertzaleak

'Kalera-kalera' dinamikaren barruan espetxeetara martxak antolatu ditu Ezker Abertzaleak, dispersioaren 30. urteurrena salatzeko. Curtis, Fleury, Picassent, Puerto, Roanne eta Saint Maur espetxeak bisitatuko dituzte. Elgoibartarrak, Debabarreneko gainerako herriekin batera, Roannera joango dira. Autobusean joango dira, maiatzaren 19an goizaldeko 1:00etan, eta hilaren 20an itzuliko dira, iluntzean. Interesatuak Jai Alai tabernan eman behar dute izena.

Odol ateratzeak egingo dira gaur Elgoibarren

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren, Odol Emaileen Elkarteak anbulategi ondoan daukan lekualdean, 18:30etik aurrera. Elkartetik ohar-tarazi dute odol premia handia dagoela eta odola ematera animatu dituzte elgoibartarrak. Ekainean, berriz, bi egun izendatu dituzte Elgoibarren odol ateratzeetarako: 2a eta 23a.

Maddalen Iriartek hitzaldia eman du

Maddalen Iriarte EHBilduko legebiltzarkideak hitzaldia eskaini zuen joan zen ostiralean Elgoibarren. Gure Esku Dago herri dinamikak iganderako deitutako herri galdeketeri babesa emateko gonbidatu zuen EHBilduk, baina askotariko gaiak landu zituen bere solasaldian. Kazetaritza politikara egindako jauziaz aritu zen, eta baita EHBilduren birfundazio prozesuaz ere. Horren harira esan zuen orain arte hainbat alderdiren koalizio izan badira ere, alderdi bateratu eta bakarra izatera igarotzeko gertu dela EHBildu.



Aitz Beltz tabernako pintxoa saritu du Mendaron pintxo lehiaketako epaimahaiak, eta Menditxokoa goratu dute herritarrek



Bi herritar Txirristakako pintxoa probatzen.

Pintxo lehiaketa antolatu zuen astebururako Mendaroko Udalak, eta giroa berotzeko, Eibarko Ustekabe txaranga ekarri zuen zapatuan. Larunbatean eta domekan izan zuten herritarrek propio lehiaketarako sortutako mokadutxoak dastatzeko aukera, eta astelehenean eman zuten Udalak irabazleen berri. Epaimahai teknikoaren arabera, Aitz Beltz tabernako pintxo izan zen onena, eta haren atzetik, Menditxokoa eta Txirristakakoa. 7,92eko

nota jarri zioten irabazleari, eta 7,83koa eta 7,75ekoa hurrengo biei, hurrenez hurren. Herritarrek ere izan zuten, baina, euren pintxo gustukuena hautatzeko aukera, tabernetan pintxoarekin batera banatzen zuten papertxoa beteta. Eta menditxo tabernakoa izan zen, beste behin, herritarren pintxorik gustukuena, 8,41eko puntuazioarekin.

Menditxokoaren atzetik Arrats tabernako pintxoak jaso zuen puntuazio altuena, eta Txirristakakoak ondoren. Era berean, botoa eman zuten herritar guztien artean, 50na euroko bi bono zozketatu zituen Udalak, eta bi lagun hauek izan dira irabazleak: Antonia Martin eta Ana Fernandez. Martinek Aitz Beltzen gastatu beharko du 50 euroko bonoa, eta Ana Fernandezek, Menditxon.

Egin zaitez bazkide!
Elgoibarko Izarra
 943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Ardo dastaketa antolatu du biharko Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak ardo dastaketa antolatu du biharko, hilaren 13rako. Herriko enparantzan egingo da dastaketa, 12:00etatik 14:30era, eta lau upategitako ardoak egongo dira aukeran: Jer (Huercanos), Bagordi (Andosilla), Otero-Ruiz de Alegria (Baños de río Ebro) eta Miguel Angel Muro (Lapuebla de Labarca) upategietakoak. Bost euroan sei ardo eta pintxo dastatu ahal izango dira.

'Gu ere bertsoan' jaialdia eskainiko dute Mendaron, hilaren 16an

Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen *Gu ere bertsoan* proiektuaren barruan, Mendaroko ikastolako haurrek bertso-jaialdia eskainiko dute maiatzaren 16an, San Agustin Kulturgunean. Bi orduko jaialdia izango da, 16:30etik 18:30era. Gu ere bertsoan proiektua Bertsozale Elkartearena da, eta ikastetxeetan, ikas orduetan bertsoarritza lantzeko proiektua da (www.bertsozale.eus). Lau arlo lantzen dira bereziki: hizkuntza, kultura, musika (ahotsa) eta trebetasun pertsonalak eta sozialak.



Botoa ematera deituta zeuden elgoibartarren %22,12k eman dute botoa Gure Esku Dago deitutako galdeketan

- AINARA ARGOTIA -

16 urtez gorako elgoibartarrak –Elgoibarren erroldatutakoak– deitu zituen Gure Esku Dago mugimenduak bozkatzera iganderako, eta horietatik %22,12k eman zuten botoa; guztira, 2.113 lagunek. Debabarrenean parte-hartzea %18,74koa izan zen. Itzian izan zuten parte-hartze handiena, %44,46koa, eta Eibarren apalena, %11,39koa. Egunaren bukaeran, eta BARRENEK eskatuta, balorazio azkarra egin zuen Ione Ariznabarreta Elgoibarko batzordeko kidea, eta esan zuen pozik zeudela, batetik, galdeketa egitea bera lorpen bat zela uste zutelako, eta bestetik, herri galdeketa egin ahal izatea babestu zuten herritarrek baino gehiagok eman zutelako botoa domekan.



Elgoibarren ere 9:00etan zabaldu zituzten hauteslekuak, Kalegoen plazan, Kalebarren plazan eta Maalan jarri zituzten karpa irekiak. Aurrez, baina, Elgoibarko Gure Esku Dago batzordekide Elena San Martinek adierazpen bat irakurri zuen plazan, erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduaren izenean. Gogorarazi zuen 52 herritako herritarrek zeudela egun horretan bozkatzera deituta, eta nabarmendu zuen igandeko bozketako emaitzak irudikatuko zuela herritarrek zer nolako etorkizuna nahi zuten. Elgoibarraren, bi galdera ziren erantzun beharrekoak: Nahi al duzu

gaur egungo estatus politikoa aldatzea? Nahi al duzu euskal estatu independentea? Lehenengo galderari baietza eman zioten 2.032 lagunek eta ezetza 57k (17 lagunek zuri bozkatu zuten). Bigarren galderari, berriz, 1.883 lagunek esan zioten "bai" eta 165 lagunek "ez" (57 lagunek zuri bozkatu zuten).

Euskal Herrian, 52 herritan, 250.000 herritar zeuden deituta igandean iritzia ematera, eta 63.201 boto eman ziren guztira; bestera esanda, herritarren %25,49k hartu zuten parte.



Elgoibarko Gure Esku Dago batzordeko kidea da Ione Ariznabarreta eta berak egin du balorazioa, taldearen izenean.

▶ IONE ARIZNABARRETA GURE ESKU DAGO TALDEKOA

“Herritarrek hitz egiten ari dira eta agintariak behartuta daude entzutera”

♦ **Zer balorazio egiten duzue igandekoaz, eta orain arte egindakoaz?**

Oso ona. Batzordean zazpi lagun gara, eta elkarrekin bera protokoloak hala ezartzen zuelako sortu genuen. Egin dugun lan guztia elkarlanean egin dugu. Taldekideok hartu dugu behar bada lidergoa, baina lana herritarrek egin dute, eta sendo gainera. Pentsa! Dirua lortzeko, errifak atera genituen eta errifan zozketatzeko gauzak ere herritarrei eskatu ge-

nizkien, eta jakina, herritarrengana jo genuen gero errifak saltzera. Lanerako dei egin diegunean borondate onenarekin etorri dira. Herri galdeketa kontu honekin hasi ginenean geu ere beldur ginen gai izango ote ginen edo zer, baina bilera ireki bat antolatu genuen eta agertu ziren guztiak lehenengo momentutik bertatik eman zuten izena zerbaitetan jarduteko. Izugarria izan da, zoragarria. Herritarrek herriarentzako egin dute lan, eta zer gauza polita-

gorik hori baino! Oso giro polita sortu da hasi ginenetik gaur arte, eta igandekoa horren erakusle izan zen.

♦ **Betetzat ematen dituzue zuen helburuak?**

Neurri handi batean, bai. Bi helbururekin hasi genuen hau guztia: gaur egungo estatus politikoaren inguruan herritarrek zuten iritzia ezagutzeko eta adierazteko herritarrek eskubidea zutela etorkizunaren inguruan galdetuak izateko, eta herritarrek prozesu parte-hartzaileetara ohitzeko. Azpimarragarria da zenbat koloretako jendea batu zaigun; adin eta pentsakera ezberdinetako jendea etorri zaigu, eta elkarrekin lan izugarria egin dute zubiak eraikitzeo, elkarrengana gerturatzeko eta adostasun batera iristeko. Horregatik diogu ‘eskerrik asko’ esanda motz gelditzen garela baina ez zaigula bururatzen hori baino hitz egokiagorik sentitzen duguna adierazteko.

♦ **Parte-hartze datua hor dago: %22,12. Askok oso portzentaje apala dela esango dizute.**

Bai, askori entzun diet hori eta talde barruan ere badira erantzun handiagoa espero edo nahi zutenak, baina kontuan izan behar dugu galdeketa honen izaera zein izan den eta zein baldintzatan egin den. Kontu bat esango dizut: igandean, terrazetan jarrita zeudenetako asko erabakitzeko eskubideaz ari ziren hizketan. Galdeketa sinbolikoa izan da, emaitza loteslea izan ez den neurrian, eta 2.000 lagun baino gehiagok eman dute botoa, eta jende batek, gainera, udaletxera ere joan behar izan du errolda-agiri bila, parte hartu ahal izateko. Hau da, herritarrek eurek hartu behar izan dute ardura, botoa eman ahal izateko aurkeztu behar zituzten agiriak eskuratzeko. Kontuan izan behar dugu, gainera, ohiko hauteskondeekin alderatuz, askoz zailtasun handiagoak izan ditugula galdeketa antolatzeo. Ez dugu erroldarik izan, protokolo estu bat bete behar izan dugu eta geuk ere ahalik eta zorrotzenak izan nahi izan dugu, inork ez dezan kontra egiteko heldulekurik eduki. Baina, bai, beti izaten da ten-

tazioa emaitzei behar baino gehiago erreparatzeko eta gure emaitzak inguruko herriein edo gure ezaugarri bereko herriek lortu dituztenekin alderatzeko, baina ez zaigu iruditzen hori denik bidea, besteak beste herri bakoitzak nork bere errealitatea bizi duelako. Kontziente gara, eginahalak egin arren, ez garela iritsi sektore guztiengana: ez gara iritsi erdal giroko jendearengana, ez gara kanpotik etorritako lagunengana iritsi eta ez gara iritsi gazteengana. Horren gainean hausnartu behar dugu, bai, baina kontu bat daukagu argi: egindako guztia baleko da. Gure egitekoa ezberdinen arteko zubiak eraikitzea da, elkarri entzun eta elkarrekin adostasunak bilatzea, elkarrekin aurrera egiteko. Etiketek karga handiegia izan dute gurean beti, eta ari gara, poliki-poliki batzuk leuntzen, muturrak gerturatzen. Begira: giza-katera 600 elgoibartar eraman genituen, 1.802 lagunek sinatu zuten galdeketa egin ahal izateko eta 2.113 lagunek eman zuten botoa igandean. Kapital bat badago hor, beraz. Dena den, gauza bat: seguru gaude bozketa hau loteslea izan balitz, igandean baino jende gehiago etorriko zela bozkatzera.

“Herritarrok oraindik ez dugu sinisten gure hitzak duen indarrean”

♦ **Erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dute denek, baina benetan nahi dugu erabaki?**

Oraindik beldur handia dugu eta gai batzuen inguruan hitz egiteari erreparo handiegia diogu. Eta oso-oso eroso bizi gara. Entzunak entzun eta pasatutakoak pasatuta ere, oso eroso bizi gara. Gobernuak lapurretan egiten digute eta guk oraindik txisteak egiten ditugu. Baina ez da bromarako kontua. Herritarrok asko dugu esateko, eta pertsona osoak izateko, espazio

publikoa gure egin behar dugu, guk baino hobeto inork ez dakielako zer nahi dugun, zelako etorkizuna nahi dugun. Niri askok esan didate ‘hara, politikan hasi zara orain?’. Baina ez; nik politikaz ez dakit ezer, baina iruditzen zait egon behar dela aukera gauzak beste modu batean egiteko, eta herritarrok busti behar dugula, jarri behar dugula guretik. Gure Esku Dagon uste dugu guk esateko dugunak balio behar duela zerbaiteko, eta hasiera-hasieratik horri eman diogu balioa: jendeak iritzia emateari, iritzia edozein dela ere.

♦ **Eta hemendik aurrera zer?**

Guk nahiko gure bueltan ibili den jende guzti hori gertu mantentzea. Ekainaren 10ean Bilbon ekitaldi bat egingo da, eta han, herriek egindako ekarpenekin, herritarrek esandakoekin, osatutako Herri Ituna irakurriko dute. Asmoa da galdera ikur handi bat osatzea jendeak Euskadi Plazatik Plaza Biribilera arte, eta bukaeran adierazpen hori irakurtzea. Ondoren, etorriko dira olatu gehiago ere. Azken olatu honetara 52 herri batu gara, baina beste herri batzuetan ere ari dira galdeketa prestatzen. Eta hurrengo pausoa hiriburuetan galdetzea izango da.

♦ **Aurreikusten duzue noizbait balio loteslea izango duen galdeketa bat egitea?**

Guri iruditzen zaigu behin hiriburuetan galdetu ostean, ardura hori hartzea beste norbaiti dagokiola.

♦ **Instituzioei, agintariei?**

Bai. Gure Esku Dago herriarrak ahalmenu nahi ditu, gure ordezkariak behartzeko prozesu honen lidertza hartzera. Nik neuk ez daukat zalantzarik hori iritsiko dela. Herritarrek hitz egiten ari dira, eta agintariak behartuta daude herritarrei entzuterara. Zenbat eta gehiago izan, orduan eta behartuago sentituko dira erantzuterara. Herritarrok oraindik ez dugu sinisten gure hitzak duen indarrean. Gure nahiak eta gure esperantzak beste batzuen esku lagatzen ditugu, eta haiek eurek nahi dutena egiten dute. Horren kontzientzia hartu behar dugu.

▶ KEU AGIRRETXEA

MUSIKARIA

Norbere diskoetan eta zuzenekoetan batak bestearen laguntza jasotzeko ohitura dute aspalditik Keu Agirretxea eta Jon Gurrutxagak, eta urteetako elkarlan horretan beste urrats bat eman dute orain. Bi musikariek kanta bat sortu dute elkarrekin, eta kontzertu bira bat egiten ari dira bikote formatuan Euskal Herrian zehar. Biak dira musikariak, irakasleak eta batez ere, lagunak.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Aspalditik ezagutzen duzue elkar Jon Gurrutxagak eta biok. Zer esango zeniguke Jon Gurrutxagari buruz?

Lagun handia da niretzat 'Jongu'; horrela deitzen diot nik. Eta musikari oso ona da. Bera ikusten dudak bakoitzean aho zabalik geratzen naiz. Abesteko eta instrumentuak joteko daukan ahalmena sekulakoa da. Pentsa, bera bateria jotzen hasi zen, eta orain dela urte batzuk eman zuen gitarrarako pausoa eta primeran moldatzen da. Eta ahotsa oso ona dauka. Nik gozatu egiten dut bera entzuten, eta publikoa ere aho zabalik geratzen da.

◆ Ibilbide luzea daramazu musikan, eta taldean zein bakarka ikusi izan zaitugu. Nola sentitzen zara gusturago?

Bi moduek dute berea. Bakarka presio edo ardura gehiago daukazu, eta taldean, aldiz, babestuago-edo zaude, instrumentu gehiago daudelako; saxoa, baxua, teklatura... *Jongu* ere etortzen da batzuetan gitarrarekin laguntzera eta koroak ere egiten dizkigu. Sekulako troparekin joaten naiz, eta abestiak diskoetan diren bezala jotzen ditugu. Bakarkakoan neure eran moldatzen ditut kantak; batzuetan luzeago eta besteetan, laburrago. Egia esan, bi moduetan aritzen naiz gus-tura.



Arg.: Freddy Agirretxea

“Neure barruan sortzen diren gauzak abesten ditut”

◆ Hastapenetan musika gogorra egiten ezagutu zintugun hainbat taldetan, eta orain, aldiz, bakarkakoan musika lasaiagoa egiten diharduzu.

Sarri esaten didate hori, baina kontua da nire lehenengoko disko instrumentalak, hau da, disko lasaia, 1999an grabatu nuela. Hiru disko instrumental dauzkat, eta bakarkako zortzi disko ditut. Beti uztartu ditut bi musika motak. Ulertzen dut jendeak pentsatzea lehen musika gogorra- goa egiten nuela, bereziki *Etsaiak* edo *Governors* taldeekin lotzen nautelako askok. Talde horiek izen handia izan zuten, eta jendeak horien erreferentzia

dauka. Baina talde horiekin atsedena hartzen genuenean beti saiatzen nintzen nire diskoak ateratzen. Etsaiak taldearekin Mexikon eta Kuban egin genuen bira baten ostean grabatu nuen nire lehen bakarkako lana, *Gaztelupeko Hotsak* disketxearekin, 99an.

◆ Zein musika talde edo musikari hartzen dituzu erreferente moduan zure musika sortzeko?

Gero eta musika estilo gehiago entzuten ditut. Lehen askoz markatuago neukan estiloa. Gazteagoa nintzen, eta radikalagoa musika gustuetan. Metal estilokoak eragiten zidan asko nire joteko eran. Orain

edozer entzuten dut, eta uste dut inork ez didala gehiegi eragiten. Neure barruan sortzen diren gauzak abesten ditut. Entzuten dudan guztiaren laburpen moduko bat egiten dut, eta nire barruan sortzen dena abesten dut.

♦ **Teknologia berriek musika modu errazagoan sortzea ahalbidetu dute. Zuk nola sortzen duzu musika?**

Ni nahiko klasikoa naiz musika sortzeko orduan, eta gitarra eta sakeleko telefonoarekin moldatzen naiz. Gitarra akustiko batekin sortzen ditut abestiak normalean. Gero grabatzerakoan eta editatzerakoan teknologia erabiltzen dut. Gaur egun musikari gehienok etxean dauzkagu beharrezko aparatuek abestiak grabatzeko.

♦ **Musikari izateaz gain, musika irakasle ere bazara, tartean Mendaroko musika eskolan.**

Bai, 17 urte daramatzat musika eskolatan klaseak ematen, eta Mendaron aurtan egingo dut laugarren urtea. Mendaron denetarik ikasleak ditut, umeak, gazteak eta nagusiak. Gitarra klasikoa irakasten dut, baina batzuk etortzen dira gitarra elektrikoarekin eta bakarren bat baxu elektrikoarekin ere bai. Nahiz eta eskolak bere plan pedagogikoa eduki, ni saiatzen naiz ikasle bakoitzaren gustuetara moldatzen, ikaslea motibatuzko. Errepertorio zabal erabiltzen dugu, eta jendea gustura dabil, edo hori esaten didate behintzat!

♦ **Mendaron ba al dago musikarako zaletasunik?**

Bai, herri txikia da, baina harritu egin nau, mugimendu handia daukan herria da. Musika Eskolan bertan ikasle asko ditugu, instrumentu desberdinak ikasten, umeak musika tailerrera ere joaten dira, koroa ere badago, txaranga, biolina jotzen Juan Arriola 'Arta', elektotxaranga... Denetarik dago. Jende pila bat ezagutu dut, oso jende jatorra. Niri gustatzen zait nire lana; egia esan, pila bat disfrutatzen dugu gelan.

♦ **Musikaz bizitzea lortu duzu eta gainera gozatu egiten duzu. Pribilejiatu bat zarela esan daiteke?**

Bai, egia esan ez dut nire burua beste

inon ikusten. Kontzertuak eskaintzeko ere eskola egutegiak pila bat laguntzen du. Nire bizitzatik gauza gutxi aldatuko nintzuke une honetan. Bermeon eta Ondarrun ere eskaintzen ditut musika eskolak eta polita da ikustea ikasle asko taldeetan jotzen hasten direla.

“Herri txikia da Mendaro, baina harritu egin nau; mugimendu handiko herria da”

♦ **Gaur egun diskorik ez dela erosten esaten da. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Bai, hala da, lehengoarekin alderatuta musika digital asko deskargatzen da gaur egun. Egoera honen aurrean bi aukera daude: etxeko sofán eseri eta kejarzen aritu edo lanean jarraitu. Nik bigarren aukeraren alde egin dut. Zuzenean jotzen jarraitu dut, eta guk antolatu dugu gure *merchandising* propioa. Kontzertuetan salmenta zuzena egiten dugu, eta Internetetik ere zabaltzen dugu gure musika. Etxeko sofán limoi aurpegiak geratzeak ez du ezertarako balio.

♦ **Aurrera begira, zein dira zure asmoak?**

2016an atera nuen azken diskoa eta taldearekin ia 40 kontzertu inguru eskaini genituen. Orain *Jongurekin* ari tuko naiz *Izanak* proiektuan uztaile arte edo. Bira txiki bat egiteko asmoz hasi ginen, baina orain kontzertu gehiago atera zaizkigu. Horrez gain, liburu bat daukat eskuartean. Gitararako piezak bildu ditut, eta partiturak jaso ditut liburuan. Neuk konposatutako piezak dira, gehienbat gitarra akustikoarekin joteko modukoak, baina edozein gitarrarekin jo daitezke. Neuk jo eta youtuben daude ikusgai. Irailean kaleratuko dut liburua, eta Durangoko azokarako, diskoa.

Jon Gurrutxaga



♦ **Zer esango zeniguke Keuri buruz?**

Lehenik eta behin, lagun ona da. Eta musikari gisa sormen handikoa dela esango nuke, ezinegon handikoa, beti gauza berriak ikasten eta probatzen ibiltzen dena. Oso musikari ona da.

♦ **'Izanak' abestia sortu duzue elkarrekin.**

Bai. Aspalditik kolaboratu izan dugu batak bestearen lanetan, eta bageneukan gogoia gure bakarkako emanaldiak elkartu eta kontzertu batzuk elkarrekin emateko. Bira txiki hori prestatzen ari ginela, iruditu zitzaigun abesti bat elkarrekin sortzea polita izango litzatekeela, eta horrela sortu genuen *Izanak* kantua. Bion artean egin ditugu bai musika eta baita letra ere. Pop-folk estiloko abesti lasaia da.

♦ **Zeri buruzko kanta da?**

Azken urteetan errefuxiatuei eta immigrazioari buruz ikusten ari gara dauka oinarrian abestiak. Bere herrialdea utzi behar izan duten familiei buruzkoa da, euren lurraldean bizi duten egoeratik ihesi Europara datozen horiei buruzkoa.

♦ **Zer moduz doa bira?**

Oso ondo. Bakoitzak bakarka jotzen ditu norbere abestiak lehengo, eta amaieran, elkarrekin abesten ditugu kanta batzuk, tartean *Izanak*. Harrera oso ona izan dugu, eta gu ere oso gustura gaude. Bikote moduan ari garen lehengo aldia da, eta esperientzia oso polita izaten ari da.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Txakur kakak jaso egin behar dira: "Trenbide kalea eta pista beltza lotzen dituen igogailutik irten eta txakur kaka mokordo hori aurkitu nuen parez-pare. Eta ez da lehenengo aldia. Txakur jabeei errespetu apur bat eskatu nahi diet. Txakurra edukitzea erabaki duenak badaki kakak jaso egin behar dituela".

Idorbeko berdegunearen erabilera okerra egiten dute herritar askok: "Eguraldi ona iristearekin bat, herritar asko igotzen dira Idorberra, hango mahaietan bazkaltzera, eta askok parrilan sukaldatzen dute. Hori ondo dago, baina erabiltzaile batzuek ez dute ezer errespetatzen. Autoak gaizki aparkatzen dituzte, beraien mahaitik ahalik eta gertuen, aparkalekuan lekua egon arren; txakur jabe askok ez dituzte txakurrak lotzen, eta solte ibiltzen dira nahi duten eran, eta, gainera, gero dena zikin-zikin eginda uzten dute. Eskertuko genuke tarteka udaltzainak igoko balira egoera kontrolatzera".



Txakurrak lagatzeko gantxoak jarri dute denda kanpoan: "Uzuri optikako kideek txakurrak denda atarian uzteko gantxoak jarri dute eskaparateko horma batean. Iniziatiba interesgarria iruditu zaigu. Gainerakoek ere egin beharko lukete. Herritar askok dituzte txakurrak, eta erosketak egiterakon kanpoan uzten dituzte, gehienetan solte, eta hori oso arriskutsua da".




Emiliano Marcos de la Torre

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela. Sendiak eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Umoretsu eta pozik
beti prest giroa alaitzeko.
Senar, aita, aitxitxa maitea,
ez zaitugu ahaztuko.***

Etxeakoak





Elgoibarko Mendi Itzulia grabatzera etorriko dira ETBko 'Gailurra Martxan' saiokoak

Morkaikoren Eguna antolatu du Morkaiko mendi taldeak zapaturako, maiatzaren 13rako, zazpigarren urtez jarraian. Ohi legez, Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxoa eta Finalista Eguna batera egingo dituzte. Elgoibarko Mendi Itzuliko irteera 6:00etan izango da Kalegoen plazatik. Haurrentzako Itzulitxoaren irteera, aldiz, 9:00etan izango da Kalegoen plazatik, eta 10:00etan Idotorbetik. Azkenik, Finalista Eguneko domina banaketa ekitaldia 13:30ean egingo dute Kalegoen plazan. Iaz, 210 lagunek egin zuten Elgoibarko Mendi itzulia, eta itzulitxoan, aldiz, 280 umek eta nagusik hartu zuten parte.

'Gailurra Martxan' saioan

Euskal Herriko mendi martxak ezagutzera ematen dituen *Gailurra Martxan* telebista saiokoen bisita jasoko du aurten Elgoibarko Mendi Itzuliak, saioko atal bat eskaini nahi baitiote.



Guraso eta seme-alabek Itzulitxoa egingo dute.

Andoni Aizpuruk egingo ditu itzuliko 38 kilometroak, eta Elgoibar inguratzen duten mendietako txoririk ederrenak bistaratuko ditu. Irati Andak, berriz, Elgoibarko historia eta elgoibartarren istorio interesgarriak erakutsiko ditu. Ekainaren 1ean, eguenean, emango dute Elgoibarren grabatutako saioa ETB1en, 22:15ean.

Umeentzako rokodromoa

Morkaikoren Egunean parte hartzen duten umeek eskaladaz gozatzeko aukera izango dute, Josu Merino eskalatazaileak prestatu duen rokodromo mugikor bati esker (beheko argazkian). Kalegoen plazan jarriko dute zapatuan egun osoan. 2,40 metroko altuera du eta Egur Arte Tailerreko umeek margotu dute. 15:00etatik aurrera, umeentzako erronkak prestatuko ditu Merinok. Atxutxiamaiak ere eskainiko ditu umeentzako jolasak 15:00etatik aurrera.



Josu Merinok eta Egur tailerreko umeek egin dute rokodromoa.



Futbolean eta atletismoan nabarmendu diren C.D. Elgoibarreko kideei omenaldia

Espainiako Futbol Ligako Lehen Mailan jokatzera iritsi diren jokalaririk (elgoibartarrak nahiz C.D. Elgoibartik pasatakoak) eta atletismoan Espainiako txapeldun izandako klubeko kideak omendu zituzten zapatuan Mintxetan, Realeko eta Elgoibarreko beteranoek jokatutako partidaren atsedenaldian (Omendutako lagun guztiaren argizkiak *barren.eus*-en). Txuri urdinek irabazi zuten partida 3-2ko emaitzarekin, Ugarte, Cuyami eta Kepak sartutako golei esker. Elkorlibek sartu zuen elgoibartarren gola. Partidaren ostean, Maalan egin zuten bazkari herrikoian parte hartu zuten 200 bat lagunek.

Mendeurrena ospatzeko ekintzekin jarraituz, maiatzaren 19an egingo dituzte joan den martxoaren 3an bertan behera gelditu ziren ospakizunak. Futbol Eskolako umeek Kalegoen Plazan, Plaza Txikian eta Lekueder parkean jokatuko dituzte partidak, eta Elgoibarko Udalaren omenaldia ere jasoko du klubak. Taldearen ehun urteko historia jasotzen duen argazki erakusketa ere martxan da, eta hilaren 28ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Haundiren partida erabakigarria, bihar

Mailari eusteko partida erabakigarria jokatuko du Haundik bihar Mintxetan (16:30), Zarautzen aurka. Azken laugarren postuan daude elgoibartarrak, liga txapelketa amaitzeko hiru jardunaldiren faltan. Azken hiru sailkatuak jaitziko dira mailaz, eta arriskua dago atzetik hasita laugarrenak ere maila galtzeko. Hori dela eta, erabakigarria da sailkapenean lau puntu gehiago dituen Zarauzko taldearen aurkako partida. Haundik zaleen indarra behar duela jakinarazi du C.D. Elgoibarrek, eta Mintxetako harmailak betetzera joateko deia egin die herritarrei.



Igerilari elgoibartarrak maila onean aritu ziren Eibarren


Kirol Zehaztasun Ligako bosgarren jardunaldia jokatutako zapatuan Eibarren, eta Elgoibarko Igeriketa Taldeko arduradunek jakinarazi dutenez denbora "oso onak" lortu zituzten igerilari elgoibartarrek. 2008an jaiotako Markel Larrañagak eta Marina Zubiaurrek 100 metro estilotan lortutako markak, 1.43.93 eta 1.53.68, hurrenez hurren, nabarmendu zituzte. Baita Iker Calvok (37.10) eta Jon Dominguezek (41.06) 50 metro tximeleta estiloko proban lortu zituzten denborak ere. Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, Igeriketa Eguna egingo dute Elgoibarren maiatzaren 27an.

Ulibarri-Ganboako inguruetan bizikletaz

Mendaroko Arno Guraso Elkartek bizikleta irteera antolatu zuen domekan, hilaren 7an Ulibarri Ganboara. Marieta herritik abiatu eta hamabost kilometroko ibilbidea egin zuten urtegiaren ertzetan dauden bideetan barrena, berriaz Marietara itzuli aurretik. Eguraldia lagun, esperientzia "ezin hobea" izan zela azaldu dute, eta hasi dira irteera berrietan pentsatzen.




Mayi Mujika gailendu da Izazpiko Igoeran



Izazpiko igoera berreskuratu zuten iaz Ezkio-Itsason, hogeita hamar urteko etenaren ondoren. Aurtengo proban Mayi Mujika elgoibartarra izan da azkarrena emakumezkoetan, eta Aritz Egea urretxuarra gizonezkoetan. Mujikak 42 minutu eta 21 segundoan osatu zuen 6,3 kilometroko ibilbidea. Denboraldi honetan Osintxuko mendi lasterketa eta Kalamuako jaitsiera ere irabazi ditu eta G2 Haundiak egiteko prestatzen ari da.

118 lagunek parte hartu zuten Debabarreneko raidean, eta 85ek familientzakoan



118 lagunek parte hartu zuten Debabarreneko Orientazio Raidean, Abenturetako Raiden Iparraldeko Ligako estreinako proban. Gizonezkoetan, Haitz Larrinagak eta lanko Intxaurrandietak osatutako Insert Coin taldeak irabazi zuen proba, eta, emakumezkoetan, Ainhoa Del Campo eta Silvia Irastorza (Sagondo Raid) gailendu ziren. Bikote mistoei dagokionez, Aralar Kirolak Euskal Raid taldeak (Beñat Doyharzabal eta Maitane Garmendia) irabazi zuen proba. Elgoibartarrei dagokionez, Iñigo Larizek eta Ion Irazabalek osatutako bikoteak, LRT taldeak, lortu du guztietan sailkapen onena. Bosgarren postuan sailkatu ziren. Aurten, familian egiteko moduko raida antolatu dute estreinakoz, eta 85 lagunek parte hartu zuten, 25 taldetan banatuta.

Emaitzak

FUTBOLA

Mutriku 2 – Haundi 2 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 0 – Bergara 5 (1. erreg.)
 Elgoibar 3 – Aretxabaleta 1 (Oho. jub.)
 Elgoibar 3 – Aretxabaleta 4 (Jub. 1. maila)
 Elgoibar 3 – Beasain 2 (Oho. kad.)
 Zarautz A 3 – Elgoibar 3 (Inf. 1. maila)
 Tolosa 3 – Elgoibar 0 (Infantil Txiki)
 Elgoibar 3 – Amaiak Bat 3 (Aleb.)

SASKIBALOA

Viento Sur Elg. 58 – Take Coach 44

ESKUBALOA

Usurbil 24 – Alcorta F.G. 27 (Senior giz.)
 Tecnifuelle 35 – Consulting Alaves 16 (Ju. nek.)
 Beristain 21 – Zarautz ZKE 30 (Jub. mut.)
 Pulpo Brakys 30 – Astigarraga 47 (Kad. nesk.)
 Usurbil 24 – Urkunde Elg. 19 (Kad. mut.)
 Cometel-Dario Bus 20 – Ereintza 14 (Kad. nsk.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13
 10:30 Elgoibar – Ordizia (Inf. Txiki)
 12:30 Elgoibar – Vasconia A (Inf. 1. maila)
 16:30 Haundi – Zarautz (Oho. erreg.)
 18:30 Elgoibar – Usurbil (1. erreg.)

ESKUBALOA (IMH Kiroldegian)

Barixakua, 12
 20:00 Lauko Elg. – Egia (Sen. emak.)
 Zapatua, 13 (Olaizaga Kiroldegian)
 12:30 Astigarraga – Bera Bera (kad. nesk.)
 18:30 Beristain – Arrano Bergara (Jub. mt.)
 Domeka, 14
 13:00 Alcorta F.G. – Tolosa (Semn. giz.)

Zabalik dago Futbol 7 txapelketarako izen-ematea

Maiatzaren 25era bitartean eman daiteke izena Bailarako XX. Futbol 7 Txapelketarako. Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek antolatutako txapelketan 2001. urtean eta aurreko urteetan jaiotako gazteek parte hartu dezakete, taldeko 80 euro ordainduta. Gehienez 20 talde onartuko dituzte, Olaizaga kiroldegian izena ematen duten hamar, eta Ipurua kiroldegian izena ematen duten beste hamar. Delegatuen bilera maiatzaren 26an, 19:00etan, izango da, Ipurua Kiroldegian. Aurten, Mintxetako belarra aldatzeko obrak direla eta, partidu guztiak Unben jokatu dira, ekainaren hasieratik uztailaren erdialdera.

Iñigo Zearsolok Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua zuzenduko du gaur

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur Eibarko Coliseo antzokian, eta estreinako aldiz, Iñigo Zearsolo elgoibartarrak zuzenduko du saioa. Zearsolo zuzendaritza ikasketak burutzen ari da, eta ikasketa horien barruan praktikak egiteko baliatuko du gaurko kontzertua. Iñigo Zearsolo orain dela 34 urte hasi zen Elgoibarko Musika Bandan klarineta jotzen, baina betidanik izan du interesa musika zuzendaritzan, eta iaz hasi zituen ikasketak. Esan du ilusio eta gogo handiz dagoela kontzertua zuzentzeko. Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengo zatian musika lasaia izango da nagusi. Bigarren zatia alaiagoa izango da, eta pare bat film ezagunetako abestiak ere joko dituzte. Kontzertua 20:30ean hasiko da.



Familia Eguna Idotorben, maiatzaren 27an

Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoak Familia Eguna antolatu du maiatzaren 27rako, Udal Ludotekarekin elkarlanean. Familien hizkuntza ohituretan eragitea da helburua, eta horretarako, umeei zein gurasoei euskara erabiltzeko espazioak eskaini nahi dizkiete antolatzaileek. Oraingoan, Idotorbe auzoa izango da espazio hori. Nahi duten familiak oinez igo daitezke, baina autoz joateko aukera ere badago. Oinez joango direnak 10:30ean bilduko dira Kalegoen plazan, eta autoz igoko direnak 12:00etarako egon beharko dute Idotorben. Arduradunek hainbat ekintza prestatu dituzte: jolasak, paella jana, Niala magoa, merienda partekatua eta erromeria. Euria egiten badu, Maalako parkean ospatuko dute Familia Eguna. Interesatuek maiatzaren 23rako eman beharko dute izena Elgoibarko Izarran, Udal Ludotekan edo www.elgoibarkoizarra.com webgunean. Informazio gehiagorako: 943 741 626

Xabier Isastiren kartelak iragarriko du Trinitateetako danborrada



Xabier Isastik irabazi du Trinitate jaietako nagusien danborrada iragartzeko Atabal elkarteak antolatutako kartel lehiaketa. Iazko aldean nabarmen egin du gora partaidetzak aurtzen, eta guztira hamar lan aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketara. Epaimahaiak adierazi du "kalitate handikoak" izan direla lan guztiak, eta bat aukeratzearabaki "zaila" izan dela nabarmendu du. Isastik 300 euroko saria jaso du. Ekainaren 10ean izango da aurtzen nagusien danborrada, baina aurretik, sagardo eguna antolatu du Atabal elkarteak maiatzaren 26rako. Maalako parkean izango da, 19:00etatik aurrera.

Aisialdirako diru-laguntzak %25 handitu ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko haur eta nerabe guztiak oporraldietako aisia eskaintzetan baldintza berdinetan parte hartzeko aukera izateko asmoz, Udalak 8.000 euro bideratuko ditu diru-laguntza hauek ematera, iaz baino %25 gehiago, hain zuzen ere. Diru-laguntza familia ugariari, bigarren seme-alabaren izen ematea egiten dutenei eta gizarte izaerako diru-laguntzen bat jasotzen duten familiei zuzendua dago. Familiek hiru oporraldietako aisia eskaintzen kuotei dagozkien diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte hiru oporraldietan: Aste Santu, uda eta Gabonetan. Eskerak Udalaren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana, 2) egin daitezke, maiatzaren 19a baino lehen.

Euskara arloko diru-laguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak

Euskara sustatzeko, hainbat diru-laguntza emango ditu Elgoibarko Udalak. Diruz lagunduko die, esate baterako, barne-tegietan euskara ikasteko egonaldiak egiten dituztenei, eta era berean, diru-laguntzak emango ditu baita ere Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko. Azken horretarako irailaren 29a izango da laguntza eskatzeko azken eguna. Era berean, diru-laguntza emango du UEUK, EHUK eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko eta baita Elgoibarko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi

korporatiboa euskaraz edo ele bitan jartzeko ere. Euskarazko irakaskuntzaren aldeko jaietarako eta herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko diru-laguntzak ere emango ditu. Jarduera horietarako eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izango da, baina dagoeneko aurkez daitezke eskabideak. Eskabide horiek eta beharrezkoa den dokumentazio guztia Udalaren Arreta bulegoan aurkeztu behar dira. Informazio gehiagorako eta argibide gehiago jasotzeko: Euskara Saila: euskara@elgoibar.eus / 943 744 366.

Galiziar usaina hartu du Elgoibarrek asteburuan

Kultura galiziarra ezagutzeko aukera eskaini digu asteburuan Galiza Etxeak. Aita Agirre plazan atondu zuten jai-gunea eta Galiziako jatekoak, hango muskuilu estimatuak dastatzeko eta hango musikaz gozatzeko aukera izan zuten elgoibartarrek. Los Trovadores orkestrak girotu zituen barixaku eta zapatu gauak, eta zapatuan, Maceda kultur elkartekoek eta Haritz dantza taldekoek dantza ikuskizuna eskaini zuten, elkarrekin. Asteburu osoko egitaraua prestatu zuten antolatzaileek, ohi legez, eta eguraldia lagun jende ugari ibili zen jai-gunean.



Debabarreneko dantzarien harrobia sendo dagoela erakutsi du 'Dantzara barra-barra' ikuskizunak



Biraka dantza taldeko 220 bat dantzari elkartu zituen zapatuan Elgoibarko Kalegoen plazan *Dantzara barra-barra* ikuskizunak. Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira antolatu zuten ikuskizuna, eta eguraldia lagun jende ugari erakarri zuten plazara. Dantza klasikorako arropak jantzita, barran egin ohi dituzten hainbat ariketa egin zituzten lehenengo dantzari guztiek elkarrekin, eta ondoren, Untza taldearen *Aldapan gora* abestia dantzatu zuten. Bukaeran, serpentina txuri-gorriak bota zituzten C.D. Elgoibarren mendeurrenari keinua eginez. **Argazki gehiago eta bideoa ikusteko:** barren.eus

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, interna edo asteburuetan.
☎ 697 754 174

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, interna edo asteburuetan.
☎ 645 891 307

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 633 401 678

Garbiketa lanak egin eta nagusiak zainduko nituzke. ☎ 631 305 697

Adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 605 196 917

Neska gaztea etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia.
☎ 688 712 075

Neska euskalduna portalak eta elkar-teak garbitzeko prest.
☎ 617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentzia onak.
☎ 632 733 573

Menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Formakuntza eta esperientzia ditut. ☎ 602 180 306

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan. ☎ 602 193 095

Neska gaztea haurrak zaintzeko eta etxeko lanetarako prest. Esperientzia

daukat. Gizarte Hezkuntzan titulua eta EGA. ☎ 688 639 371

Nagusiak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka. Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 632 564 679

Adinekoak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka. ☎ 634 209 087

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 631 613 245

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia daukat.
☎ 631 562 461

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 648 039 187

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke.
☎ 632 776 905

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 653 178 376

Adinekoak zainduko nituzke.
☎ 632 061 103

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke.
☎ 632 436 462

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago.
☎ 642 424 173

Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako.
☎ 650 029 176

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 951 901

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 983 250

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat.
☎ 635 005 536

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut.
☎ 688 712 075

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 632 850 715

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 612 493 242

Eskaintzak

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxe berria alokatzen dut Altzolan.
☎ 626 282 268

3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren.
☎ 688 802 329

Elgoibarren lan egiten dugun bi euskaldun arduratsu alokairuan bizitzeko pisu bila gabiltza.
☎ 618 395 232

LOKALAK.....
50 metro koadroko lokala salgai edo alokairuan, Basariten.
☎ 669 245 520

KINTOAK.....
1967ko kintoen bazkaria maiatzaren 20an Sigman. 11:30ean batuko dira Kalegoen plazan. 70€ sartu maiatzaren 16rako: ES44 0138 0020 1600 10783437 (Bankoa).
☎ 639 263 501

1949koen bazkaria, ekainaren 3an. Argazkia 12:30ean parrokian. Luntxa Ibai-Ondon, bazkaria Sigman 14:30ean. 50€ sartu, maiatzaren 31rako: ES0421004168 7821 0032 4544 (Caixa Bank).

1947koen bazkaria ekainaren 17an. Argazkia 13:30ean Bolatokian. Luntxa Ibai-Ondon, bazkaria Sigman 14:45ean. 60€ sartu, maiatzaren 31rako: 3035 0007 24 0071063126 (Laboral Kutxa).
☎ 647 647 270 (Camilo)
☎ 616 048 946 (Pedro)

1962koen bazkaria maiatzaren 27an. 12:30 Kalegoen plazan; 13:00 luntxa Tantikan, 14:30ean bazkaria Sigman. 45€ maiatzaren 20rako: ES09 0138 0020 1100 1061 1458 (Bankoa)

BESTELAKOAK.....

Loritoak ihes egin digu Urazandin. Grisa da eta buzian gorria dauka.
☎ 619 815 403
Txakurkumea aurkitu dut Karakate inguruan.
☎ 699 477 611



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Komunitateko presidentek batzar baterako deialdia bidali digu, eta hari erantsita, deialdia bidali duen egunerako hileko ordainketak egin gabe dituzten jabeen zerrenda. Jabeetako batek kargu hartu dio presidenteari esanez berak ez duela ezer zor, hilabete horri dagokion zenbatekoa ordaintzeko hil amaiera arteko epea duela arrazoituta. Bilera egun gutxi barru daukagu, eta jakin nahiko nuke jabeekide horri diru hori erreklamatzeko aukerarik daukagun batzar egunean.

Orokorrean, ez dago egun bat izendatuta hileko kuotak ordaintzeko, eta beraz, komunitateak ez badu behintzat egun bat zehaztu, hila amaitu arte zain egon beharko genuke, ezer erreklamatzeko hasi aurretik. Legeak dio etxe-jabeek nahiz lokal jabeek batzarrak adostutako egunetan eta batzarrak adostutako moduan ordaindu beharko dituztela hileroko kuotak. Bestela, administratzaileak edo presidentek epaitegietara jotzeko aukera izango lukete, jabeekideen batzarrak hala erabakiz gero behintzat.

AHOLKUA: Sortu diren zalantzak saihesteko eta argi izateko noiz erreklamatu dezakegun, egokiena litzateke jabeekideen hurrengo batzarrean zehaztea hileko zein egun den ordainketak egiteko azken eguna.



ZORIONAK ZURI

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Nora**, bihar 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Ekaitzen partez.



Zorionak, **Narrea**, bihar 11 urte egingo dituzulako. Muxu asko familiako guztien partez. Ondo pasa!



Zorionak, **Laida**, ostegunean 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Teo**, gaur 5 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Sabinen partez.



Zorionak, **maitea**, 6 urte bete dituzulako. Neska handi! Patxo handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **sorgintxo!** 8 urte jada! Segi halako irribarre ederrarekin.



Zorionak, **Maria!** Ondo pasa zure urtebetetze eguna. Aupa zu!



Zori, zori, zorionak, **Oier!** Piztu itzazu kandelak, zori, zori, zorionak, putz egin eta itzali denak.



Zorionak, **Leire**, bihar urte bat egingo duzulako. Etxekoan partez, muxu potolo bat.

SAN ANDRES FUNDAZIO PUBLIKOA

Eibarko San Andres Egoitzak ondorengo lanpostuetarako lan poltsak eratu behar ditu. Interesatuak bidali CV ondorengo helbideetako batera:

Posta arrunt bidez: Legarre 6 - 20600 Eibar.
Posta elektronikoz: fpsanandres@sti.logiccontrol.es

LANPOSTUA	BETEBEHARRAK
Erizaina	- Erizain unibertsitate titulua. - 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea.
Erizain laguntzailea	- Erizain laguntzaile titulua (lanbide heziketa) edo erakunde sozialetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko ikastaroa. - Elikagaiak manipulatzeko txartela. - 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea.
Garbitzaile/zerbitzaria	- Derrigorrezko bigarren hezkuntza edo baliokidea. - Elikagaiak manipulatzeko txartela. - 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea.
Jangelako laguntzailea	- Derrigorrezko bigarren hezkuntza edo baliokidea - Elikagaiak manipulatzeko txartela - 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

12 BARIKAKUA

17:30 Kiribilen ikuskizuna, Maalako parkean. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

21:30 Bideo foruma: 'Amor' filma ikusiko dute. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Dinamizatzaila: Loredi Salegi.

13 ZAPATUA

MORKAIKOREN EGUNA

6:00 Elgoibarko Mendi itzulua. Kalegoen plazan hasita.

9:00 Itzulitxo. Kalegoen plazatik hasita. Nahi duenak 10:00etan hasi dezake ibilaldia Idorbetik.

13:00 Bazkariak ematen hasiko dira. Elizako arkupeetan.

13:30 Finalista Eguneko dominen banaketa, Kalegoen plazan.

14:00 Umeen bazkaria, elizako arkupeetan.

15:00 Haurrentzako jolasak Atxutxia maikarekin eta sorpresa. Kalegoen plazan.

17:00 Familia argazkia aterako dute partaide guztiek. Kalegoen plazan.

12:00 Ardo dastaketa, Mendaron. Herriko Enparantzan. Upaitegiak: Jer (Huercanos), Bagordi (Andosilla), Otero-Ruiz de Alegria (Baños de Río Ebro) eta Miguel Angel Muro (LaPuebla de La-Barca).

16 MARTITZENA

16:30 Bertso jaialdia. Mendaroko Ikastolako haurren saioa, San Agustín Kulturgunean.

19:30 'Osasuna eta kirola' hitzaldi zikloaren barruan, *Iragana gogoratu, etorkizuna eraiki* hitzaldia eskainiko dute Unai Arrietak eta Angel Maria Lopezek. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

17 EGUAZTENA

18:00 GeoElgoibar ibilbidea, Inma Mugertza biologoarekin. Kaleetako geologia aztarnak ikusiko dituzte. Udaltxeko arkupeetan batuko dira. Izena emateko: infohydrolur@gmail.com edo 943 901 654 (2, 5 orduko ibilaldia izango da).

18 EGUENA

11:00 Pleno Txikia, Elgoibarko udaltxean. Ingurumen Sailak antolatuta, Agenda 21 egitasmoaren barruan.

19 BARIKAKUA

18:00 C.D. Elgoibarko futbol eskolako umeen partidak. Kalegoen plazan, Le-kuederren eta Aita Agirre plazan.

19:30 Aterri musika taldearen emanaldia, Kalegoen plazan. C.D. Elgoibarrak antolatuta.

19:30 C.D. Elgoibarri harrera, udaltxean. Pleno aretoan.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

12 Barixakua BARRENETXEA

13 Zapatua IBAÑEZ

Goizez: ETXEBERRIA

14 Domeka IBAÑEZ

15 Astelehena GARITAONANDIA

16 Martitzena BARRENETXEA

17 Eguaztena FERNANDEZ*

18 Eguena YUDEGO

19 Barixakua ORUESAGASTI*

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)

Santa Ana, 1

Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)

Fermin Calbeton, 19

Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384



V. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

Enarak bueltatu dittuk eta hire izena ekarri juek mokoetan

Kuadrillako lagunak



Zinea (Herriko Antzokian)

Ekainean hildakoak

'La alta sociedad'

12 barixakua: 21:30
 13 zapatua: 19:00 / 22:15
 (VOS)
 14 domeka: 19:00
 15 astelehena: 21:30

- **Antonio Salazar Lopez**
98 urte, martxoak 14
- **Mertxe Azkue Unzueta**
84 urte, martxoak 30
- **Martina Zabaleta Azurmendi**
96 urte, apirilak 1
- **Aurelio Garcia Lopez**
89 urte, apirilak 3
- **Santiago Ansola Arrieta**
92 urte, apirilak 10
- **Jose Ignacio Sarasua Garate**
60 urte, apirilak 11
- **Julian Garay Diego**
87 urte, apirilak 12
- **Karmele Larrañaga Aldazabal**
82 urte, apirilak 15
- **Miren Astiazaran Zubia**
88 urte, apirilak 24



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



V. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

**Gure ondotik
 joan zara,
 baina betiko
 izango zaitugu
 gure bihotzetan.**

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

Familiakoak





Eire Vila

Mikel Olaizola



ihes zegokien lekutik.

Burrunba, dantza, instante bat. Kaltontzillotan, sukaldeko azulejo hotzean zutik, iheserako bide motzena zein ote den ezin erabaki: pasabidea korrika zeharkatu hormak arrakalatzten doazela, eta gero ezkaratza pasa amiltzen doazen eskilaretan behera; edo lehioetik salto egin, esekitokiko sokei helduta, lehen solairua izanik bernahezurren bat hausteko gehienez ere.

Eta azkenean biderik motzena sukaldeko azulejo hotzean zutik geratzea, kaltontzillotan, lurrak berriro ere lo hartu duen arte, eta ikara itzali. Ez dirudi kalte handirik eragin duenik etxean: liburu

7:48. Etxetik bost kilometro eskasera epizentroa, lurrazaletik hurbil, 4.7 Richter eskalan. Pareko teilatuan ilada osatzen zuten hiri usoek, estoldetako arratoi iletsuek, nire katiluko kafeak dardar egin dute, eta

bakarren bat erorita, egutegia lurtean, sarrerako lanpararen kristal zatiak dilindan.

Kalean zalaparta da, ordea, auzokoen hizketa entzuten da guretik, eta prakak jantzita banao, etxeko zapatilatan. Etxabeko ate metaliko berdearen eta beirate hautsien bestaldetik laguntza eske ari da norbait. Inork giltzik ez itxuraz eta gizon bibotedun baten sorbaldara igo naiz barruan zer ikusiko.

Bizi arrastorik ez. Estantpa desolatua da; hodi eroriak, burdina puskak lurtean, zulo beltz bat auskalo nora daramana. Goizalbare lehena sartzten da errekaletetik, eta hautsa nabarian uzten du airean. Aspaldikoa behar duen hauts bat, lurrikarak altxa eta bi-ziarazi duena, auskalo noiztik iragan hartan etzana. Ez baitut oroitzen barru hartara noiz begiratu nuen azkenekoz.

Badirudi zutabeek iraungo dutela, dena den. Eta itzuliko direla bere lekura teilatuko usoak, estoldetako arratoiak, goizeroko kafea, egongelako liburuak, gaur hegan den hautsa.

“Bizitza arrastorik ez. Estantpa desolatua da”

FAMILIA EGUNA

10:30ean mendi martxa Idotorbera
12:00etan mokadutxo
12:30ean jolasak familian
13:30ean paella jana
15:00etan Niala magoa
16:30ean merienda partekatua
(etxeko errejeta goxoak ekarri)
17:00etan Trikimailu erromerial

IDOTORBE AUZOAN
MAIATZAK 27, ZAPATUA
«eguraidi txarra egingo bainu. maizako parkean»

Aritzolaileak:



Dabesleak:



Laguntzaileak:



K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19, behea - Elgoibar
Informazioa eskatzeko, deitu:
943 743 044 edo 653 825 606

UDAKO INGELES IKASTAROAK

Ekainaren 26tik uztailaren 21era

Ingeleseko Cambridge, KET, PET, FCE eta CAE
mailetarako prestakuntza zehatza.

GOIZEZI!
TALDEAK
(6-10 ikaslekoak)



Cambridge Unibertsitateko azterketarako
batzordeko kidea ES438

Haur, gazte eta helduentzako eskolak, orokorrean.

2017-2018 ikasturterako aurrematrikula epea zabalik

- ◆ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ◆ Cambridge azterketen prestakuntzarako talde zehatzak.
- ◆ Laguntza eskolak: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa
- ◆ Helduentzako klase orokorrak

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO-1eko matrikulazio aldia zabalik maiatzaren 15etik 26ra

HHO (2017an jaiotakoak) irailean eta urrian hasteko

HH 1 (2016an jaiotakoak) irailean hasteko



elgoibar ikastola



www.elgoibarikastola.eus
943 744441

Ikastola ezagutzeko aurkezpen bilera maiatzaren 15ean, 18:00etan





Maria Salegui eta Marina Ortuoste

❖ Nola bururatu zitzaizun autokarabana alokatzeko enpresa sortzea?

Oporrak aire librean eta jendearekin harriman bizitzea gustatzen zaigu. Urte askoan joan izan gara oporretan kanpinera. Lehenengo denda batekin joaten ginen, gero karro-dendarekin, ondoren karabana batekin eta azkenik autokarabana erosi genuen. Autokarabana erosteaz bat, mundu bat zabaldu zitzaigun. Jende askok esaten digu jubilatzen denean autokarabana erosi eta mundua ezagutzeko litzatekeela euren ametsa. Ideia bikaina da, baina zergatik itxaron jubilatze arte?. Autokarabanengatik sentitzen dugun pasioa jendearekin konpartitzea bururatu zitzaigun. Autokarabana alokatzeko zerbitzu honekin bidaiatzeko modu berri bat erakutsi nahi diogu jendeari; leku eta kulturak ezagutzeko beste modu bat.

❖ Zein zerbitzu eskainiko dituzu?

Gure helburu nagusia da esperientzia hau gure bezeroentzat gozagarria izatea. Horretarako, matrikulatu berri dauden autokarabana ekarri ditugu, ibilgailuarekin sortu daitezkeen arazoak ahalik eta gehien murrizteko. Gure ibilgailu guztiek arrisku orotako aseguru dute, errepidean asistentzia 24 orduz eta KresalaCaravan asistentzia tekniko 24 orduz. Abenturari ekiteko beharrezkoa den guztia dute, ilusioa izan ezik. Bezeroen beharretara egokitzen gara, eta

bidaiari dagokion aholkularitza guztia eskaintzen dugu: ibilbide posibleak, autokarabana geratzeko guneen informazioa, aholkuak... Eta, aldiz, bezeroak autokarabana erostea erabakitzen badu, bere beharren arabera ibilgailua aurkitzen lagunduko diogu, adibidez, bigarren eskuko

salmenta merkatuan. Era berean, autokarabana behar dituen osagarriak aurkitzen ere lagunduko diogu.

Gure Facebook-eko orrian aurkituko dituzue autokarabanen munduari buruzko informazioa eta gomendioak: gune be-

riak, ibilbideak, salgai dauden autokarabana...

❖ Zer eduki behar da kontuan autokaraban bidaiatzeko?

Lehenik eta behin ilusio eta abentura gogoia eduki behar dira. Horrez gain, asaguru kontuengatik, gidariak 25 urte beteta eta bi urteko B gidabaimena eduki behar ditu.

Autokaraban bidaiatzeko beharrezkoak dakar lasaitasuna. Ezin da prisarik eduki helmugara iristeko. Bidean desbideratu egin behar da herriak edota paisaiak ikusteko. Hori ere abenturaren parte da. Komeni da jarraituko dugun bidea pentsatuta eramatea, nahiz eta gero ez jarraitzea erabaki. Baina horrek asko lagunduko digu gure bidaiari, bereziki atzerrian. Hona hemen kontuan hartzeko hainbat gomendio:

- ♦ Justua eraman behar da, gehiegizko jantzi edo ekipajerik ez da eraman behar.
- ♦ Kontuan izan uneoro dimentsio handiko ibilgailua gidatzen ari garela, eta bideak horren arabera aukeratu.
- ♦ Ziurtatu aparkatzeko edo gaua pasatzeko aukeratu duzun tokia baimendutakoa dela eta ez dagoela inolako eragozpenik.
- ♦ Ur gris edo beltzak husteko, horretarako prestatutako guneak aukeratu.
- ♦ Ez atera ibilgailutik kanpora kanpinarako elementuak, baimenduta ez dagoen lekuetan.
- ♦ Ingurumenarekin eta gainerako autokarabana erabiltzaileekiko errespetua izan.

Iritsi berri zaizkigu izango ditugun hiru ibilgailuetatik bi! Nahi al dituzu zuk estreinatu? Deitu 688 803 185 telefonora edo bisitatu gure Facebook orrialdea. Gustura hartuko zaitugu!